

OSTEGUNA

2021/01/21

9. urtea, 1.356. zenbakia

107,6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €

Aurrekontuan txertatu dituzte herritarren ekarpenak

‘Guztion artean Tolosatzen’ partaidetza prozesuan jasotako hainbat proposamen aurtengo aurrekontuan dauden proiektuekin lerrokatu direla nabarmendu du udalak // 2

Mediku etxeko proiektua da inbertsio nagusia Berastegin

1.109.611 euroko aurrekontua onartu du udalak 2021erako; Amaia Azkue alkateak azaldu duenez, aurrekontu «zuhurra» prestatu dute, «ez dakigulako urtea nola joango den» // 6

Seigarren eta zortzigarren geratu dira Jauregi eta Mozo

Ikaztegiatarrek Euskal Herriko Lokotx Biltze Txapelketan parte hartu dute; iaz egitekoa zen Gipuzkoako Txapelketa egingo dute laster // 7

«Nire lehen taldea izanda mundu hau nolakoa den ikusi dut»

IÑAKI LIZASO
MUSIKARIA

Bihozkada taldeak pasa den urte amaieran erabaki zuen ibilbidea amaitzea; egungo egoerak eragina izan duela esan du // 6



ZIZURKIL

ETORKIZUNAZ SOLASEAN

Plaza Etxeberri eraikinaren etorkizunaz eztabaidatzeko Herribizigune elkarteak dinamizatuta parte hartze prozesua ari dira egiten; prozesua borobiltzeko formazioa jasotzen ari dira, eta martxoan egingo duten saioan amaituko dute // 4

JON MIRANDA



ikasteko
grina
sortuz

**Aurrematrikulazio
epea zabalik
Urtarrilaren 18tik 29ra**

**Aiztondoko
eskola
publikoa**



Herritarren proposamenak txertatu dituzte aurtengo aurrekontuan

‘Guztion artean Tolosatzen’ partaidetza prozesuan iaz jasotako ekarpenak aurrera eramateko, egitasmo ezberdinak bildu ditu Tolosako Udalak 2021eko aurrekontuan; 27 milioi euroko proiektua osatu dute

Josu Artutxa Dorronsoro

Azken osoko bilkuran onartu ondoren, jada herritarren eskura jarri du Tolosako Udalak 2021eko aurrekontuen txostena, «modu ulerterrazean, tolosarrek informazio osatua izan dezaten». Besteak beste, gastuak arloka nola banatu dituzten, helburu eta lehenetasun nagusiak zein diren eta aurrekontu proiektu eta egitasmo gauzatuko dituzten azaltzen da, grafiko eta irudi bidez.

Aurtengo aurrekontu proiektua «ezohikoa» dela azaldu du Olatz Peon alkateak. «Egungo egoerara egokitu behar izan delako, unean uneko nahiz etorkizuneko beharrei erantzuteko. *Suspertu Tolosa* planaren jarraipena da, zorrotza, errealista eta jasagarria. Udal baliabide guztiak erabiliko ditugu zaurgarritasun egoeran dauden herritarren eta sektore kaltetuenen beharrei erantzuteko, inor atzean utzi gabe. Aldi berean, tolosarrentzat estrategikoak diren egitasmoetan aurrerapausoak ematen jarraituko dugu, herriaren gara-

pen sozial, ekonomiko eta jasangarria sustatzeko».

EZBERDINA, BAINA ABERATSA

Aurrerapauso horiek emateko, ezinbestekotzat jotzen dute iaz egin zen *Guztion artean Tolosatzen* partaidetza prozesua. Izan ere, aurrekontu txostenean jaso dira 2020an herritarrek egindako zenbait proposamen. «Konpromiso indibiduala bultzatzeko egindako lanketatik sortu zen prozesua, elkarlan publiko-komunitarioa sustatzea helburu hartuta. Aurtengoa, baina, ezberdina izan da, hausnarketak maila ezberdinetan egin ditugulako», azaldu du Joseba Ormazabal Gobernantza eta Komunitatea saileko zinegotziak. Hala ere, balorazio positiboa egin du. «Proposamen interesgarri bezain aberatsak jaso ditugu».

Ekindako bideari jarraipena ematea da asmoa. «Elkarlana izan da eta da egoerari aurre egiteko bidea; ezinbestekoa da herritarrengandik gertu egotea. Gobernantza eredu berrietan sakontzen jarraituko dugu, tolosa-

rrengandik gertu egon gaitezen, eta inplikatu daitezen. Helburu horrekin, Gobernantza eta Gardentasun Ordenantza garatuko dugu aurrean, herritarrekin elkarlanean», esan du Ormazabalek.

LAU SAIL, DOZENAKA EKARPEN

Tolosarrek egindako ekarpen eta proposamenak sailez sail aztertu ditu udalak, eta martxan jarri dituen lan lerro eta proiektuekin lerrokatu dira. Ongizatearen esparruan, zaintzaren sektoreari eman diote garrantzia. «Elkar zaintzen duen gizartea indartu nahi da. Herriko sare soziala garatzea da asmoa, auzo batean proiektu pilotu bat martxan jarri», dio, saileko teknikari arduraduna den Garikoitz Lekuonak.

Ekonomia alorrean, ekoizpen ekologikoari garrantzia eman eta bertako nekazaritza bultzatu eta profesionalizatu nahi da, tokiko produktuen kontsumoa sustatuz. «Azoka Lagunak indartuko da. *Tolosatzen, keinu txikien herri aliantza* egitasmoaren baitan, *Elikadura eta kontsumoa* izango da apirileko gai nagusia».

Komunitateari eta partaidetzari begira, herrian dagoen eskaintza gizarteratu eta elkarrekin ezagutaraztea da asmoa. Bestetik, komunitatean harremanak sendotu nahi dira, elkar hobeto ezagutzeko sarea sortuz. Horrez gain, *Haurren Hiria* egitasmoaren baitan, ahotsa eman nahi zaie haur, nerabe eta gazteei, hausnarketa kolektiboa sustatzeko. «Proposamen horiei erantzuteko, Elkarleen Katalogoa garatu, eta egoerak ahalbidetuz gero, udazkenean elkarleen arteko topaketa egitea da asmoa», gaineratu du Lekuonak.

Azkenik, eta jasangarritasunari dagokionez, Agenda 21 proiektua indartzea, eta birziklapena bultzatzeko, sentsibilizatzeko eta kontzientzia pizteko, elikagaien xahuketaren aurkako ekintzak gauzatzea eskatzen dute herritarrek. «Proposamen horiei erantzuteko, Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko Tokiko Plana garatzeaz amaituko dugu, garapen jasangarriko helburuak eta ingurumen adierazleak zehaztuz».



Joseba Ormazabal, Olatz Peon eta Garikoitz Lekuona, 2021eko aurrekontu txostena aurkezten. TOLOSAKO UDALA

GAKOAK

1 Helburuak. Gizarte babesa bermatzea, hiri ekonomia suspertzea, kultura babestea, komunitatea sendotzea eta Tolosa-ren etorkizuneko oinarriak lantzea.

2 Aurrekontua, zenbakitan. 2021eko aurrekontua: 27.037.040 euro. Foru Funtsa: 13.205.721 euro. Berezko baliabideak: 13.831.319 euro. Inbertsio soziala: 2.922.691 euro.

3 Banaketa. %28,84a (7,8 milioi euro) Antolakuntza sailera bideratu da; %32,52a (8,8 milioi euro), Lurraldea sailera; eta %38,64a (10,4 milioi euro), berriz, Herritarren sailera.

4 Antolakuntza. Sail honetara bideratutako dirua, Ogasun departamentua, Idazkaritza, UDATE, Udaltzaingoa, Gobernu organoak eta informatika zerbitzuak indartzeko erabiliko da.

5 Lurraldea. Sail honetan, hiri-gintza, kale garbiketa, zabor biltzea, argiteri publikoa, azpiegiturak, parke eta lorategien mantenua eta ingurumena eta trantsizio energetikoa indartuko dira.

6 Herritarren. Gizarte Zerbitzuak, Gazteria, Kultura eta Jaiak, Euskara eta Hezkuntza, Komunitatea eta Gobernantza, Garapen Ekonomikoa, Kirola eta Berdintasuna lagunduko dira diruz.

7 Proiektuak. Euskal Herria plaza, Gorriti plaza, Laskoain kalea, Gernikako Arbola, Emakumeen etxea, Zumarditxikia, kultur etxea, etxebizitza hutsak, Usabaledota eguzki-panel berriak.

Lau langile berri kontratatu dituzte

J. Artutxa Dorronsoro

Tolosako Udalarentzat lehentasun bat da aurrean herritarren gizarte babesa bermatu eta euren beharrei erantzuten jarraitzea. Inbertsio soziala %9 igoko da eta hainbat prestazio eta gizarte zerbitzu areagotuko dituzte.

Aurtengo aurrekontu proiektuan jaso da baita ere langabezian dauden lau pertsona kon-

tratatzeko, horietako bi 30 urte azpikoak, herritarrei lan aukera berriak eskaintzeko, are eta gehiago egungo testuinguruan.

Pandemiaren ondorioz, giza beharrak areagotu eta lan egiteko modu berriak ezarri dira. Hori dela eta, Gizarte Zerbitzuen alorra eta informatika alorra indartu nahi ditu udalak, «herritarren beharrei modu egokiagoan erantzuteko». Gazte Planaren ba-

rruan, urte beterako bi pertsona kontratatu ditu: gizarte langile bat eta informatikari bat. Eskualdeko Enplegu Planaren baitan, bi peoi ere kontratatu ditu. «Kontratazio horien bitartez, une honetan ezinbestekoak diren alorrak indartu nahi izan ditugu».

Administrazioa garai berrietara egokitzea ere ezinbestekoa da. Pasa den urtean, lan egiteko modu berriak ezarri behar izan

zituen udalak, egoerara egokitu, modu telematikoan zerbitzua eskaintzen jarraitzeko. «Digitalizazioa errealitate bat da, horregatik, administrazio elektronikoan sakondu eta herritarrei zerbitzu hobea eta eraginkorragoa eskaintze aldera kontratatu da informatikaria, pertsonak erdigunean jarrita, herritarren beharrei modurik egokienean erantzuteko».

Alegiako kultur etxeko bazkide txartelak berritzeko aukera

Udalak urtarrean eta otsailean egingo du Inaxio Begiristain Kirol eta Kultur Etxeko bazkide txartelak berritzeko kanpaina

Erredakzioa Alegia

Alegiako Udalak prest du kirol-degiaren erabilera martxan jartzeko bazkide txartel kanpaina. Urtarrean eta otsailean egingo du, eta 2020ko prezioak mantenduko ditu. Lehenengo kuota normal ordaindu beharko dute bazkideek, eta pandemiak eraikinak ixtea eragingo balu, bigarren kuotan aldaketak egongo lirakeela aurreratu dute udaletik.

Hiru modu daude bazkide txartel egiteko, familiarra, helduena edota hobariduna, eta Alegian erroldatuta daudenek gutxiago ordaindu behar dute. Bestalde, hilabeterako bazkide txartel egiteko aukera ere badago, eta 20 euro ordaindu beharko da.

Informazio edo argibide gehiago jasotzeko kultur etxera joan daiteke edo 943 65 46 98 telefono zenbakira deituta eskuratu daiteke.

Ingurumen larrialdi globala herriz herri salatzeke ekimena antolatu dute

Larreko Mahaiak U30 Aldaketaldia antolatu du hilaren 30aren bueltan «ahal den herri, auzo, ikastetxe eta lantoki guztietan ingurumen larrialdia salatzeke» helburuarekin

Nala Vazquez

Hainbat talde ekologista, sindikatu eta eta eragilek osatutako Larreko Mahaiak U30 Aldaketaldia antolatu du. Ekimenak ingurumen larrialdia salatzea du helburu, «betiere ikuspegi lokalek». Hori dela eta, hilaren 30ean manifestazioa egingo dute Donostian 17:00etatik aurrera Gladys Enea parketik abiatuta, baina ekitaldi horrekin batera, bestelako ekitaldiak egingo dituzte Gipuzkoako 20 herri baino gehiagotan, tartean Altzon, Tolosan eta Aiztondo bailaran. Zehaztuta dagoen bakarra, dena den, Altzokoa da; Haritzalde taldeak dinamizatuta, zuhaitz landaketa egingo dute otsailaren 6an.

Norabide aldaketa bat eskatzen du Larreko Mahaiak eta horretarako euskal gizarte aktibo eta saretua osatu behar dela



Larreko Mahaiak Donostian eman zuen ekimenaren berri. ATARIA

uste du: «Agintari politikoek, orain pandemiaren aitzakian, eredu ekonomiko eta sozial jasanezinean sakondu eta larrialdi-egoera areagotzen jarraitzen duten honetan, beharrezkoa da norabide aldaketa sakona exijitu eta trantsizio ekologiko eta sozialki justu baten alde urratsak emango dituen jendarte

aktibatu eta saretzea». Gogoratu du era berean, otsailaren 6an Zaldibarko zaborte gertae-raren urteurrena ospatuko dela eta hori gizarteratzen lagundu nahi duela. «Zaldibarkoan argi geratu baita Euskal Herrian, ingurumen alorrean, gauzak ez direla ondo egin eta ez daudela ondo egiten ari».

24 positibo berri atzeman dituzte azken egunean, Tolosaldean

Tolosan 17, Leaburu-Txaraman eta Amasa-Villabonan hiruna eta Abaltzisketan positibo bat zenbatu dituzte

Erredakzioa

Osasun sailak emandako datuen arabera, 13.774 test diagnostiko egin zituzten herenegun, eta horietatik 1.046 positiboak izan ziren. Gipuzkoan, 298 positibo atzeman zituzten, tartean, 24 Tolosaldean.

Amasa-Villabonak (642) eta Tolosak (577) kolore gorrian jarraitzen dute. Osasun eremuei dagokionez, Alegiako (401) eta Villabonako (476) eremuak kolore laranjaekin daude, eta Ibarako (522) eta Tolosako (557) eremuak gorrian ageri dira.

Gaur emango du jakitera Osasun sailak eremu gorrian dauden udalerrien zerrenda. Une honetan, Amasa-Villabona, Irura eta Tolosa daude eremu gorrian. Ibarako osasun eremua gorrian dagoela kontuan hartuta, baliteke eremu horren baitako hainbat herri bihar eremu horretan sartzea.

GUTUNAK

Aitor eta Galder aske!

ETaren desegitea ezagutu dugun gazteak gara, euskal gazteriaren aurkako azken epaiketak izango zirelakoan, herri harresietan parte hartu genuenak, «indarkeriarik gabe» guztia posible izango zela errepikatu zigutenak.

Euskal Herriko gazte konprometituen aurkako errepresioak, orde, ez du etenik. Azken urteetan, Altsasuko gazteen askatasuna eskatu dugu behin eta berriz, eta datorren urtarrilaren 21ean eta 22an Aitor eta Galder Amurrioko eta Gasteizko gazteek Auzitegi Nazionaleko aulkietan eseri beharko dute. Horrez gain, ezin aipatu gabe utzi espainiar kolonialismoaren eta monarkia-aren aurka egindako ekimenaren-gatik deklaratzera deitu dituzten Iruñerriko 12 gazteak.

Aitor eta Galder 2019. urtean atxilotu zituzten «helburu terroristekin lehergaiak gordetzea» egotzita. Duranan aurkitutako

suziri batzuen harira Ertzaintzak bi gazteak atxilotu zituen 2019ko otsailaren 7an, eta hainbat hilabete espetxean izan ondoren, 2019ko abuztuaren baldintzapean aske utzi zituzten.

Orain, Fiskaltzak zortzi urteko espetxe zigorra, zazpi urteko zaintzapeko askatasuna eta hamabost urteko gaitasungabetzea eskatu du gazte bakoitzarentzat. «Helburu terroristarekin armak, munizioak eta lehergaiak zein horien osagaiak gordetzea eta trafikatzeari» leporatzen die.

Aitorrek eta Galderrek salatu duten gisan, EAJ eta Ertzaintza dira beren aurkako epaiketaren arduradunak, eta militantzia politikoaren aurkako eraso zuzena da. Euskal Herriak bere burujabetza prozesuan aurrera egitea saihestu, eta sufrimendua betikotu nahi duena.

Horregatik, Aitor eta Galderri elkartasuna adierazteko, eta beren askatasuna eskatzeko gaur, hilak 21, 19:00etan, Ibarako plazan, Zizurkilgo Joxe Arregi pla-

zan eta Anoetako plazan egingo ditugun mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten dizuegu herritar guztiei.

Ez dugu onartzen absoluzioa ez den beste epairik!

Euskal gazteria aurrera!
Aitor eta Galder aske!

Tolosaldeko Ernai

«Eman ez ziren» gertaeren inguruko gure bertsioa

Gaizki kontatutako gezur batek ez du, ez sinesgarritasunik, ezta ere arretarik merezi. Baina komunikabideetan mota honetako gezur bat behin eta berrero errepikatzen denean, ustezko instituzio politiko serio baten izenpean gainera, egiaren itxura hartzeko arriskua du.

Horregatik, Rainboweko lagunok 2021eko urtarrilaren 2an «eman ez ziren» gertaeren inguruko gure bertsioa eman beharra sentitu dugu.

1.- Ez ziren COVIDaren aurka indarrean zeuden neurriak hautsi, eta ez ziren udaltzainak iraindu, besteak beste, etorri ez zirelako.

2.- Ez zegoen gazte eta ez-hain-gazte taldeen pilaketarik, ez taberna barruan, ez kanpoan.

3.- Ez zegoen inor musukorik gabe, distantzia mantendu gabe, eta ez zegoen inor ere barran kontsumitzen. Bezero guztiak eserita zeuden, bai taberna barruan, baita kanpoan ere, bakoitza bere musukoarekin.

4.- Ez zen Udaltzaingoa iraindu, ez baitzeuden han. Ertzaintzaren 6 patruila agertu ziren Kale Nagusira, bizilagun baten deia zela eta, antza. Ez zitzaigun lokala aireztatzen utzi bi ordu eta erdian zehar, nahiz eta hainbat alditan eskaera hau luzatu, segurtasun eta higiene neurriak mantentze aldera.

5.- Ez dugu inongo isun proposamenen berririk, gaur arte behintzat. Akta baten irekieraren berri bakarrik eman zitzaiz-

gun, edukieragatik eta segurtasun distantziagatik. Honen harira, argi utzi nahi dugu edukiera behar bezala errespetatzen zela. Nahiz eta, presentzia polizialak izuturik, hainbat bezero kaletik tabernara kolpean sartu, identifikatzeko unean denak zeuden eserita eta musukoarekin.

Ez gara bestelako balorazio batzuetan sartuko. Dena den, min eman digu talde politiko batek, ostalaritza establezimendu baten kriminalizazioaren bizkar, etekin politikoa atera nahi izateak, eta are gehiago, gure bezeroen izen ona zikintzeak. Gure helburu bakarra bakean lan egitea da, aisialdi atsegina eta seguru bat eskainiz.

Azken egunetan jasotako elkartasuna eta babesa eskertzea besterik ez zaigu gelditzen, besarkada bat amasar eta billabonatar guztiei.

Gora gu ta gutarrak!

Pablo Eguzkiza Amasa-Villabonako Rainbow-eko tabernaria (beste 60 lagunen izenean, horietako 20 lekukoak)

Herribizigune elkarteak formazio saioak antolatu ditu Zizurkilen

Herrigunean dagoen Plaza Etxeberri eraikinaren etorkizunaz eztabaidatzeko elkarteak dinamizatu duen parte hartze prozesua biribiltzeko jasoko dute herritarrek formazioa

Jon Miranda Zizurkil

Proiektu politiko-sozial eraldatzailatzat du bere burua Herribizigune elkarteak. 2018ko udazkenean hasi zuen ibilbidea eta ordutik Zizurkilgo Herrigunea toki bizigarriago bihurtzeko ahalgintetan dabil herritar taldea. «Herri hobe nahi dugu, herri euskaldunagoa, parte hartzaileagoa, ekologistagoa, solidarioagoa eta feministagoa. Martxan jartzen ditugun proiektuek ikuspegi horri jarraitzen diote», azpimarratu du Alaitz Mujika Herribiziguneko kideak.

Besteak beste, elkarteak bulztatutako elikadura sarea jarri zuten martxan 2019ko abenduan. Gaur egun 37 bazkidek hartzen dute parte eta urtean 20 euroko ekarpena egiten du bakoitzak. Astero, inguruko ekoizleek eskaintzen dituzten produktuak kontsultatu ditzakete www.herribizigune.eus webgunean edota eskaera orria jaso WhatsApp bidez. Aukeratutako produktuen banaketa Herriguneko plazan egiten dute, astelehenero, 18:00etatik 20:00etara. Eskudirutan, momentuan ordaintzen diete ekoizleei, eta haiek jartzen diote salneurria produktuari.

«Elkarteko kideon interesguneetako bat da elikadura, baina Herribizigune ez da kontsumo talde soil bat izatera mugatzen, hori baino gehiago da», esan du Izaro Lizarragak. Modu globalean erantzun nahi diete herritarren beharrei eta parte hartzeko kultura sustatu nahi dute Aiztondo bailaran.

PLAZA ETXEBERRIZ GOGOETA

Zizurkilgo Udalak, 2019an, legegaldi berria hastearekin batera, parte hartze batzorde bat jarri zuen martxan. Batzorde horren zereginetako bat Herrigunean dagoen eta iaz udalak eskuratu zuen Plaza Etxeberri eraikinaren etorkizunaz erabakitzea da. Batzorde horretara 2019ko urrian bildutako eragileen artean, Herribiziguneko hartu zuen parte hartze prozesu hori dinamiza-



Lizarraga eta Mujika Herribizigune elkarteko kideak dira eta prestatu dituzten formazio saioetan ari dira parte hartzen. J.M.

tzeko ardura eta horretan dabil azken hilabete hauetan: «Ibilbidea berme guztiekin lantzeko ardura hartu genuen elkartetik. Prozesurako oinarritzko irizpideak finkatu genituen, plangintza eta metodologia zehaztu eta herritarren iritziak jasotzeko galde-tegi bat zabaldu genuen», esan du Mujikak.

Ordutik, hiru pintxo tertulia egin dituzte. Lehenengo amesteko erabili zutela aipatu dute Herribiziguneko kideek, zein behar antzematen dituzten zerrendatzeko. Bigarren pintxo tertulia egin aurretik, Zizurkilekin antzekotasuna izan dezaketen herritako esperientziak ezagutzeko txangoa antolatu zuten. Iazko irailean Ozaeta, Garaion, Lataza eta Basaburuko proiektuak bisitatu zituzten.

«Prozesu guztian zehar atera den irakurketa bateratu bat izan da proiektuak ikuspegi eraldatzailea izan behar duela, bai sozialki eta baita ekonomikoki ere», azaldu du Lizarragak. Bigarren eta hirugarren pintxo tertulietan hasieran amestutako ideiak eraikinera ekartzen saiatu dira eta Herribiziguneko kideek ikusi dute adostasun zabala da-

goela parte hartzaileen artean: «Herrian topagune edo elkargune baten beharra dagoela ikusi dugu. Elikadura sareak ere badarama urtebete martxan eta ez legoke gaizki toki fisiko bat eduki-

«Proiektuak ikuspegi eraldatzailea izan behar du, bai sozialki eta baita ekonomikoki ere»

IZARO LIZARRAGA
HERRIBIZIGUNeko KIDEA

«Herri hobe nahi dugu, euskaldunagoa, ekologistagoa, solidarioagoa eta feministagoa»

ALAITZ MUJIKAK
HERRIBIZIGUNeko KIDEA

tzea. Atera dira ideia abstraktuak ere. Momentu jakinetan aterpetxe bezala funtziona dezakeen harrera gune bat prestatzea edota balio anitzeko kultur areto bat ere planteatu izan dira. Lehenetasunak finkatu behar ditugu orain eta adostu epe motz,ertain eta luzera zein ekimen gauzatu Plaza Etxeberrin».

Parte hartze prozesua dinami-

zatzeko ardura hartu zuenean, hilabeteotako ekarpenak jasoz udalean txosten mardul bat entregatzeko konpromisoa hartu zuen Herribizigune elkarteak. Lizarragak aipatu duenez, txostena bera prestatzeko formazioa jaso beharrean zeudela konturatu ziren elkarteko kideak. Horretarako tokiko elikagaien eta elikagai agroekologikoen aholkularitzarako nahiz heziketarako zerbitzuak garatzen dituen Lakari eta Talaio kooperatibetako kideak gonbidatu zituzte azalpenak ematera.

ELKARTETIK KOOPERATIBARA?

«Herritarrentzat elkargunea izatearena, herri onurarena eta udalaren eta herritarren arteko elkarrekintzarena dira prozesuan agertu diren kontzeptuak eta uste dugu herri-kooperatiba baten forma hartu dezakeela horrek guztiak. Horretarako juridikoki zein aukera dauden ikusi beharko da eta bai Lakarik eta bai Talaiosek badute esperientzia horretan. Beste hainbat herritan aritu dira proiektu pertsonalak eta instituzionalak laguntzen», aipatu du Mujikak. Eta zera gaineratu du Lizarragak:

FORMAZIO SAIOAK

Otsailaren 3an eta 17an

17:30 – 19:30. Bide-laguntza saio kolektiboak egingo dira, Lakari eta Talaio kooperatiben aholkularitzarekin.

Martxoaren 3an

17:30 – 19:30. Balorazioa eta formazio saioen amaiera.

«Helburua ez da hasiera hasieratik proiektu pila bat martxan jartzea. Plaza Etxeberri ekimenak komunikatzeko ahoa, bizimodu hobetzeko gorputza eta komunitatea sendotzeko eskuak behar ditu».

Ikuspegi eraldatzaile horretatik ari dira, formazioa jasotzen ez bakarrik Herribiziguneko kideak, baita Aiztondoko beste hainbat pertsona ere: «Esperientzia eta jakintza hau bailararekin partekatu nahi genuen. 21 lagunek eman dute izena eta Herribiziguneko kideez gain, elikadura sarean parte hartzen duten Alkiza eta Asteasuko ekoizleak daude, Zubimusu ikastolako ardura-dunak eta Zizurkil eta Asteasuko udal ordezkariak». Dagoeneko bi saio egin dituzte. Atxulondo kultur etxean, aurreko astean, lanaren burujabetzaz, kooperatibismoaz eta tokian tokiko garapen eraldatzaileaz aritu ziren, eta Iriarte kultur etxean, atzo, sare komunitatea eta marketing komunitarioa aipatu zituzten, kasu zehatzagoetara etorrira.

Otsailaren 3an eta 17an bide-laguntza saio kolektiboak egingo dituzte eta Herribiziguneko kideek aukera baliatuko dute Zizurkilgo herri-kooperatibaren balizko proiektuan sakontzeko. Martxoaren 3an egingo duten saioan, trebakuntza honen balorazioa egin eta prozesua amaitutzat emango dute. «Prestatuko dugun txostena adostasunaren emaitza izango da. Herriaren hitza. Jakin badakigu amaiera hori beste dinamika baten hasiera izango dela. Aldi teorikoaren amaitu eta gero praktikari heldu beharko diogu», esan du Lizarragak.



Alos Quartet taldeko Xabier Zeberio musikari tolosarra. ATARIA

«Izugarrizko oparia izan da Silviorekin kolaboratzea»

Juan Carlos Cambas piano jotzailearen 'A Viaxe' (Bidaia) proiektuaren barruan, Alos Quartet taldeak Silvio Rodriguezekin grabatu du

Asier Imaz Tolosa

«Guretzat izugarrizko oparia izan da», dio Xabier Zeberio musikariak. Kasualitatez sortu zen kolaborazioa da Alos Quartet taldeak Silvio Rodriguez abeslariarekin egin duena, *La vida* abestia grabatuz. Juan Carlos Cambas pianista argentinarraren *A Viaxe* (bidaia) proiektuaren barruan egin dute.

Argentinan jaioa da, baina gurasoak galiziarak ditu. «Bere bizitza pertsonala kontatu nahi izan du. Atlantikoaren bi aldeak, kulturalki eta musikalki nola bustitzen dituen, eta nola doan batetik bestera kultura hori».

Lanketa horretan artista pila baten kolaborazioak izan ditu Cambasek. «Hego Ameriketakoak, penintsulakoak eta tartean gu gonbidatu gintuen kantu hau egiteko, eta gure ezustekorako Silvio Rodriguezekin grabatzeko zortea izan dugu», kontatu du Xabier Zeberio ATARIA IRRATIAN.

Zehazki, Silvio Rodriguezen *La vida* abestiaren bertsio bat grabatu dute. «Zortea izan da.

Hainbeste miresten dugun artista batekin kantua konpartitzea».

Dulce Pontes artista portugaldarra izan dute bitartekari. Alos Quartet taldeak ia duela 20 urte-tik du harremana, eta hastapenetan berarekin egin zuten bira, eta lan asko egin dituzte elkarrekin. «Duela lau bost urte, Dulcek deitu zigun Donostian emanaldi baterako, eta bertan ezagutu genuen Juan Carlos. Azkenaldian Dulce Pontesen piano jotzailea zen, eta adiskidetasun handia sortu zen».

Proiektuaren berri orduan eman zioten, eta baita deitu ere proiektuan kolaboratzeko. «Silviorekin jada hitz eginda zuela, eta lanean hasi ginen. Nik egin nituen sokazko moldaketak, berak pianoa grabatu eta Silviok bere ahotsa grabatu zuen La Habanan».

«Berak argi zuen kantu horretan nahi zuela gure kolaborazioa, eta ardura handia izan da Silvioren abesti bat moldatzea». Musikari guztiak «oso pozik» gelditu direla azken emaitzarekin aitortu du Zeberio.



Iñaki Lizaso, ezkerretik hirugarrena, taldearekin entseatzeko. ATARIA

«Entseguak egin ezinak hoztu egin du taldea nahi gabe»

IÑAKI LIZASO
MUSIKARIA

Bihozkada taldeak bost urteko ibilbideari amaiera ematea erabaki du; gaur egungo egoerak eragina izan du taldean

A. Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Bihozkada musika taldeak pasa den urte amaieran erabaki zuen taldea desgitea. Bertako kidea zen Iñaki Lizaso billabonatarra.

Bost urteko ibilbideari amaiera ematea erabaki duzue.

Pena handiz, eta ez da erabaki erraza izan. Kosta egiten da horrelako erabakiak hartzea. Bost urte eta gero, horrelako harreman bat haustea, edozein harreman haustearen modukoa da.

Arrazoren bat egon da, edo besterik gabe hasitako gauzak bukatu egiten direlako da?

Ohar bat kaleratu genuen amaieran, eta horixe jartzen genuen. Hasten diren gauza guztiak amaitzen direla ia beti. Zergatiak beti daude, noski, onerako eta txarrerako.

2015 urtean hasi ginen, kasualitatez. Bihozkada batez. Musika gogoko dut, eta gitarra ikasi nahi nuen. Tomasekin hasi nintzen ikasten, eta hortik hasi zen taldea, bere maketa eta diskoarekin. Hasieratik bukaerara bitarte ibilbide polita izan dela iruditzen zait, eta bilakaera bat ere izan duela esango nuke.

Eraginik izan al du gaur egungo egoerak?

Handia. Diskoa orduan atera genuen, eta egia da luze joan zela diskoaren grabaketa edo diskoa ateratzea bera. Kantuak sortuta zeuden. 2019 urteko Aste Santuan hasi ginen grabatzen, eta txukunketa lanak tarteko urte amaieran atera zen. Eta martxoan itxi egin gintuzten. Kontzertuak lotuta zeuden. Gurea bezalako talde batentzat hilean behin kontzertu bat izatea oso ondo dagoela pentsatzen dut, entseatu eta motibatzeke. Baina... hor geratu ginen.

Nahi bezala ezin zabaldu egin dako lana.

Hori da. Horrelakorik gertatu ez balitz, ez dakit momentu honetan taldea utzita egongo zen edo ez. Entseguak egiten dituzu gustatzen zaizulako, baina gero beti gustatzen da erakustea edo plazaratzea. Urduritasun puntu hori... Guzti hori bukatu edo mugatzeak nik uste azkartu edo behintzat eragin duela erabakian.

Naturaltasunez hartu al duzue erabakia?

Bi taldekidek azaldu zuten uzteko asmoa zutela. Herri ezberdinetan bizi gara, eta entseguak egin ezinak hoztu egin du taldea nahi gabe.

Oroitzapen onci begiratu z gero, zer datorkizu burura?


Collage bat atera genuen sare sozialetan, eta hori behintzat lokalean handian zintzilik jarriko dugu. 34 kontzertu eman ditugu, eta kontzertu bateko argazkia falta zaigu. Hasi berriak izateko eta nire lehen taldea izanda asko ikasi dut. Jendea ezagutu, tokiak, mundu hau nolakoa den ikusi dut,... Estudio ezberdinak ere ezagutu ditugu.

Euskal pop musikatik nolakoa da musikaren mundua?

Nik oso garbi neukan euskaraz egin nahi nuela, eta horrela jarraituko dut. Militantzia propio bat da. Bestela, mundu hau ez da batere erraza. Ezezaguna bazara, oso zaila da kontzertuak lotzea eta lortzea.



zozketak



Atarikideentzat liburu bat daukagu

Yurre Ugarte tolosarraren **Lilurabera** liburu zozkatuko dugu aste honetan.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

ZUZENEAN

Ataria Irratia Inazio Urruzola Txakolindegian

Urtarrilaren 22an, ostiralean, Pasahitza saioa Alkizako txakolindegian

09:00etatik 13:00etara Ataria Irratia, 107.6 fm

ataria
irratia 107.6 fm
www.ataria.eus

ataria.eus/irratia/zuzeneko

Mediku kontsulta zaharreko lanekin hasi dira Berastegin

Udalak onartutako aurrekontuan, inbertsio nagusia izango da mediku etxeko obra; guztira, 1.109.611 euroko aurrekontua izango dute, iazkoa baino 11.171 euro gutxiago

Irati Saizar Artola Berastegi

Berastegiko Udalak azaroaren 10ean egindako osoko bilkuran onartu zuen 2021erako aurrekontua. Zehazki 1.109.611 euro erabiliko ditu gastu eta inbertsioetarako, iaz baino 11.171 euro gutxiago. Amaia Azkue alkateak azaldu du aurtengo aurrekontua «zuhurra» izango dela: «Aurreikusi ditugun sarrerekin egindako aurrekontu bat prestatu dugu, zuhurra zentzu batean. Izan ere, ez dakigu urtea nola joango den eta zein ustekabeko gertatu zaizkigun, baina aldi berean, garatzen joan nahi dugu, herritarren zerbitzuak mantendu eta areagotzeko».

2020ko kontu orokorra onartzen dutenean, soberakinetatik diru «nahikoa» izatea aurreikusi dute: «Zenbat dirurekin geratu garen ikusiko dugu orduan eta kreditu aldaketak egingo ditugu, inbertsio gehiago aurrera eramanean ahal izateko».

Aurtengo inbertsio nagusia mediku etxeko obrak izango dira. Azkuek azaldu duenez, proiektu hau iazko aurrekontuan txertatu zuten, baina «ustekabeko jaitsierak» tarteko, aurtun egingo dute. Herritarren parte hartze prozesu baten bidez erabaki zen zer nolako espazioa izango zuen eraikina, eta herritarrek hala erabakita, beheko solairuan erabilera anitzeko gela bat prestatuko dute, eta lehen solairuan gimnasio bat egokituko dute. Orotara, 277.772



Lau hilabete eta erdian amaitzea aurreikusi dute mediku kontsulta zaharreko lanak. I.S.A.

euroko inbertsioa egingo du udalak eraikina egokitzeko. Dagoeneko hasiak dira lanekin eta lau hilabete eta erdi beharko dituzte guztia amaitzeko.

Bestalde, martxan jarritako larre komunalen proiektuarekin ere aurrerapausoak eman nahi dituzte. Lurren azterketak egiten jarraituko dute, eta beharrezko ongarriekin prestatuko dute eremua. Era berean, animaliak harriatzeko leku bat egokituko dute, abereak bildu eta eramanean edota bertan tratatzeko. Guztira, 20.000 euro bideratuko dituzte proiektu horretara.

Larre komunalen proiektuak,

orokorrean, 190 hektarea barnebiltzen ditu, eta momentuz, 50 hektarea daude erabilgarri, alkatearen arabera. «Lehenik prest daukagun eremua ondo ekipatu nahi dugu, ondoren eremua zabaltzeko». Proiektuarekin «pozik» agertu da Azkue, izan ere, aurtengo abere kopuruaren eskera jaso dute, eta pasa den urtetik gorakada handia izan dela esan du: «Horrek erakusten diguna da herritarrek, eta batez ere, gauduzaleek proiektuan sinesten dutela».

Herri garapenean ere pausoak eman nahi ditu udalak. Komunikazio estrategia lantzen jarraitu

nahi dute, eta tartean, artzaintza-aren inguruko ikerketa bat ari dira egiten. Liburu batean bildu nahi dute herriko artzaintza-aren historia, eta aurtun argitaratzea da asmoa, udazken aldean. Bestalde, mahai sektorial bat sortu nahi dute, herriko eragile ezberdinek topo egingo dutena: ekoizleek, ostalaritzako arduradunek, landetxeek... «Horrela, lehen sektoreari begira plangintza bat osatuko dugu».

Azkenik, eskola eta frontoiko eraikinetan panel fotovoltaikoak jarri nahi dituzte, eraikin horiek eguzki panelen bidez hornitu ahal izateko. Eta urtero bezala,

ZENBAKITAN

Sarrerak

	Euroak
Zuzeneko zergak	204.500
Zeharkako zergak	16.000
Tasa eta bestelako zergak	115.850
Transferentzia arruntak	773.261

Sarreraren zenbatekoa: 1.109.611

Gastuak

	Euroak
Pertsonal gastuak	503.000
Ondasun arrunta eta zerbitzuak	337.950
Mailegu interesak	7.000
Transferentzia arruntak	92.478
Inbertsio errealak	96.183
Mailegu amortizazioak	73.000

Gastuen zenbatekoa: 1.109.611

herriko zein mendiko bideak txukuntzen jarraitzeko asmoa ere badutela azaldu du Azkuek. Herriko mantenuan, beraz, hobe-kuntzak egingo dituzte.

Kontrara, pertsonal gastuetan igoera «handia» izan dutela esan du, eta hor inbertsio «handia» egin behar izan dutela: «Orain eskolaz kanpoko jardueren alorra udalak eramaten du, eta haur eta gazteen aisialdi zerbitzuak ere bai. Bigarren langile bat hartu dugu jardunaldi osoan; kultura eta gazteria dinamizatzailea batetik, eta administrazioa eta liburutegi zerbitzua hornitzen dituen bestetik».

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€ bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Peña II.a konfinatuta dago eta ez du Tolosan jokatu

Erredakzioa

Baiko Pilota enpresak jakinarazi duenez, Jon Ander Peña konfinamendu egoeran dago SARS-CoV-2 detektatzeko test batean positibo eman zuen pertsona batekin harreman estuan egon zelako. Peñari egindako detekzio probek emaitza negatiboa eman dutela gaineratu du enpresak.

Pilotariak kasu horietan agintariekin ezarritako protokoloa jarraitu beharko duela azaldu du Baiko Pilotak. Aldi baterako, Peñak ez du entrenamendu eta partidetan parte hartuko osasun agintariekin kirol jarduerara «segurtasunez itzultzea posible dela ulertu arte». Bide batez, Baiko Pilotak gogora ekarri du osasun agintariekin ezarritako «COVID-19a zaintzeko eta kontrolatzeko jarduerak prozedurak» jarraitzen dituela.

Binakako Pilota Txapelketaren laugarren jardunaldiari dagokionez, Peña II.ak Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu behar zuen larunbatean, Albisuren batera, Ezkurdia eta Ladis Galartzaren aurka. Bere ordez Zubizarreta III.a ariko da. Beotibarko jaialdian, hirugarren partidari Iker Elizegi asteasuarrak jokatu du, Arteaga II.aren batera, Elordi-Garmendiaren aurka, promozio mailako txapelketan.

ASTEBURUKO BESTE PARTIDAK

Biharko jaialdian, Zumaia Aitzuri pilotalekuan jokatu dena, Erik Jaka lizartzarrek eta Martijak Urrutikoetxea-Imaz izango dituzte aurkari. Jaialdi horretan, promozio mailako txapelketan Jon Erasun zizurkildarrek Salaverri II.a ordezkatuko du, eta Alberdirekin batera Zabalak eta Erostarbe bikoaren aurka ariko dira.

Igandeko jaialdian, Bilboko Bizkaia pilotalekuan, Jokin Altuna amezketarrek eta Mariezkurrena II.ak Olaizola II.-Rezusta izango dituzte aurkari.

Azkenik, asteleheneko jaialdian, Gernikako Santanape pilotalekuan, Iñaki Artolaren ordez Bengoetxea VI.ak jokatzeko jarraituko du, alegiarra oraindik lesionatuta dagoelako. Arangurenekin batera aurkari Elezkano-Zabaleta II izango dituzte.

Jauregi seigarren eta Mozo zortzigarren lokotx biltzen

Euskal Herriko Lokotx Biltze Txapelketan parte hartu dute bi ikaztegiatarrek

Imanol Garcia Landa
Ikaztegieta

Mattin Jauregi eta Uxer Mozo ikaztegiatarrek Gipuzkoa ordezkatu zuten asteburuan jokatu zen Euskal Herriko Lokotx Biltze Txapelketan, Abadiñoako Matiena auzoan. Zortzi parte hartzaileetatik Jauregi seigarren izan zen, 7.03ko denbora eginez, eta Mozok zortzigarren amaitu zuen, 7.34ko denborarekin. Irabazlea Unai Iantzi nafarra izan zen, 6.02ko denborarekin. Podiuma Aitor Blanco nafarrak (6.14) eta Aritz Martin bizkaitarrak (6.22) osatu zuten.

Aurkari onak zeudela ikusita, lokotxak urrutia egiteko botatzea aukeratu zuen Mozok: «Mattin



Ezkerretik hasita, Uxer Mozo eta Mattin Jauregi, txapelketan parte hartu zuten beste zenbait kirolarirekin. ATARIA

korrika gehiago ibiltzen da, baina nik hartu nuen estrategia lokotxak besteek baino urrutia egiteko botatzea izan zen. Arriskatzeko hori du: egun okerra tokatzen bada, eta huts asko egin, denbora asko galtzen da».

Txapelketa aurten jokatu bada ere, iazkoari zegokiona izan da.

Berez herrialde bakoitzeko txapelketako lehenengo biak sailkatzen dira Euskal Herriko Txapelketan parte hartzeko. Hala ere, aurreko urtean ez zen Gipuzkoako Txapelketarik jokatu, COVID-19a dela-eta hartutako neurriengatik. «Azken hiru urteetan ari gara parte hartzen biok lokotx

biltze txapelketetan, eta Gipuzkoako Txapelketarako izena emanda geunden. Euskal Herriko egin behar zela azaldu eta gu joateko esan ziguten», adierazi du Mozok. Dirudienez, laster iazko Gipuzkoako Txapelketa egiteko asmoa dagoela gaineratu du lokotx biltzaileak.

Espainiako Kopa eta Txapelketa, bertan behera

I. Garcia Landa Tolosa

Tolosa CF-ko gimnastika erritmikoko lehen mailako taldeak ezin du oraingoz txapelketetan parte hartu, aurreko asteburuan eta ondorengoan jokatzekoak ziren bi lehiaketak bertan behera geratu direlako. Aurreko asteburuan Espainiako Kopa jokatzeko zen Valentzian, eta asteburu honetan Valladoliden jokatzeko zen Espainiako Txapelketan parte hartzeko asmoa zuten. Infantil mailako gimnastikak ere lehiaketa horietan parte hartzekoak ziren.

Oraindik Espainiako Gimnastikako Federazioak ez du zehaztu noiz egingo diren lehiaketa horiek. Tolosa CF-ko gimnastei zain egotea tokatuko zaie beraz. Martxoko geldialditik ez dute txapelketarik egin, eta irrikaz

zeuden hainbeste prestatu dituzten bi lehiaketa horietan parte hartzeko. Entrenatzaileek azaldu dutenez, «frustragarria da helburu bat ez izatea eta lanean jarraitzea, datarik ez izatea helburuak finkatzeko. Denboraldiko plangintza egitea ezinezkoa suertatzen da».

Bestalde, entrenatzaileek diotenez, «eskola kirolean eta amateur mailan egoera berdina da, hasi eta geratu gabiltza. Txapelketarik egingo den ezin da jakin gizartean dugun egoera kontuan izanik. Baina, haurrek aurrera egiteko eskola kirola eskaintzea beharrezkoa da». Bide batez, entrenatzaileek eskerrak eman dizkiete gimnasten familiei eta babesleei: «Denbora zail hauetan gurekin jarraitzen dute, eta beraien gabe ezinezkoa izango litzateke kluba martxan izatea».

Unai Iribar, Espainiako 23 urtez azpiko taldearekin

Erredakzioa Ibarra

Igande honetan hasiko da errepideko txirrindularitzako aurtengo Europako denboraldia, Classica Comunitat Valenciana 1969 probaren bidez. Bertan parte hartuko du Espainiako 23 urtez azpiko selekzioak, eta taldean parte hartzeko hautatua izan da Unai Iribar ibartarra. Sei taldekide izango ditu: Juan Ayuso, Javier Serrano, Pablo Garcia, Andoni Lopez de Abetxuko, David Martin eta Xabier Isasa. Iribar eta taldekideak profesionalekin lehiatuko dira, proba horri UCI 1.2 kategoria ematen baitio. ProTeams eta UCI Continental mailako taldeak ariko dira bertan.

Probak 150 kilometroko ibilbidea izango du, La Nucia udalerria eta Valentzia artekoa. Mikel Zabala hautatzaileak azaldu

duenez, «taldeko txirrindularientzako helburu nagusia aukera aprobetxatzea da, eta ikasi dezatela profesionalen artean lehiatzen. Taldea egin behar dugu eta konplexurik gabe parte hartu».

**MOTXILA SALGAI**
Billabona F.K.E.

**35€**

Basajaun liburudendan

   Billabona Fke



OSTEGUNA, 2021EKO URTARRILAK 21
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baiarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana, Goizatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 21

AGENDA

Deialdiak

Anoeta. Jaume Funesen hitzaldia, ikastolak antolatuta, 17:00etan, *online*. Nola lagundu nerabeei iraultza erdian konfiantzatik garatzen?

Amasa-Villabona. Bidea Ipar liburuaren aurkezpena, Gurea antzokian, 19:00etan. Unai Ugartemendia egileak eta Iker Karrera mendi korrikalari ohiak parte hartuko dute.

Anoeta-Ibarra-Zizurkil. Aitor eta Galder aske! leloarekin elkarretartzea, Ernaik deituta. Anoetako plazan, Ibarako plazan eta Zizurkilgo Joxe Arregi Plazan egingo dute, 19:00etan.

Zinema

Tolosa. *Beginning* filma zine forumean, 18:45ean, Leidor aretoan.

Erakusketak

Tolosa. *Sorginak*! erakusketa Aranburu jauregian.

Tolosa. Argizaiola argazki erakusketa, Aranburu jauregian.

Tolosa. *Gizonak, emakumeak eta txotxongiloak* aldi baterako erakusketa, Topic-en.

Zizurkil. *Munduari itzulia* erakusketa, Plazida Otaño liburutegian.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

11:00. Elkarrikketap (Leire Bilbao)

11:30. Gaurkoan Tolosalde

17:30. Gaurkoan Tolosalde

18:00. Lehen lerroan (Alba Arraiza)

21:30. Gaurkoan Tolosalde

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Eguraldia, prentsa-irratia, kolaboratzaileen tartea.

16:00. Zebrabidea. Magazina.

20:00. Musikasi. Karmen Sanzekin musika klasikoa.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. E. Bengoetxea. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra mendikalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Goizean hego-mendebaldeko haizearekin giro nahiko lasaia izango dugu.

Erdi eta goi-mailako hodei asko agertuko da, baina orokorrean ateri eutsiko dio. Arratsaldean haizeak mendebal/ipar-mendebaldera egin, hodeitza trinkotu eta euritar joko du. Euri gutxi botako du. Termometroak 15-17 gradura igoko dira.



Bihar. Goizean hego-mendebaldeko haizearekin, nahiz eta, hodeiak nagusitu,

euri gutxi botako du. Egurditik, ordea, haizeak ipar-mendebaldera egin eta euritarako joera nabarmenagoa hartuko du. Tenperatura maximoak goizaldean emango dira, eta 9-10 graduan kokatuko dira. Elur-maila 1.000 metrotan kokatuko da.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



ERAKUSKETA BERRIA TOPIC-EN

Gizonak, emakumeak eta txotxongiloak. UNIMA: txotxongiloarentzat etorkizuna sortzen eta sortzen aldi baterako erakusketa zabaldu du Topic Txotxongiloen Nazioarteko zentroak. Guztira, askotariko 75 txotxongilo izango dira ikusgai. Halaber, UNIMA txotxongiloen nazioarteko elkartearen historia erakusten duen informazioarekin batera, sei ikus-entzunezko ere jarri dituzte, eta erakundearen eta munduko biltzarren jatorrizko kartel-bilduma ere ikus daiteke, 1969. urtetik azken urtera bitartekoak. ATARIA

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus - 107.6 fm

**AURREMATRIKULA
IREKIA
URTARRILAREN
18TIK 29RA**



ikastolak
hezkuntza
eraldatzen

